

Unibertsitatearen eginkizuna eskualde garapenean eztabaidagai **EKONOMIAZ - Euskal Ekonomia Aldizkariaren 92. zenbakiaren aurkezpenean**

2017/12/19

Atzo, astelehena, abenduaren 18an, Carlos Garciak, Mondragon Goi eskola Politeknikoko Koordinatzaile Orokorrak, Unibertsitateak eta eskualde-garapenearen inguruko mahai inguru batean hartu zuen parte, Donostiako Miramar Jauregian.

Mahai ingurua EKONOMIAZ - Euskal Ekonomia Aldizkariaren 92. zenbakiaren aurkezpen ekitaldearen baitan izan zen eta bertan hartu zuten parte Alberto Alberdik, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia, Finantza eta Aurrekontu Sailburuordeak, Estibaliz Hernáezek, Eusko Jaurlaritzako Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun Sailburuordeak, Adolfo Morais Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordeak, Arturo Mugak, EHU-UPVko Garapen Zientifiko eta Transferentzia Errektoreordeak, eta Victor Urcelay-ek, Deustuko Unibertsitateko Ekintzailetza eta Etengabeko Prestakuntza Errektoreordeak.

"Ekonomiaz" Eusko Jaurlaritzak 1985etik sei hilean behin argitaratzen duen nazioarteko aldizkaria da, ekonomiaren esparruan analisisa eta eztabaida bultzatzeko, bereziki EAEko ekonomiari dagozkion gaiak jorratuz.



Unibertsitateak eta eskualde-garapenearen inguruko mahai ingurua